

Hezkuntzaren proposamena. II. fasea

Batxilergoko 2. mailako ikasleak, taldeak banatu ondoren, betiere ikasgela bakoitzean 15 ikasle baino gehiago ez direla sartuko bermatuta. (Borondatezkoa da)	Aurreikusia ekainaren 1erako
Hizkuntza eskola ofizialak irekitzea ziurtagiri ofizial bat eskuratzeko azterketa presentzialak egiteko. (Borondatezkoa da)	Ekainean
Helduen ikastegiak eta Zubiarte euskaltegia irekitzea ziurtagiri bat eskuratzeko proba presentzialak egiteko. (Borondatezkoa da)	Ekainean
Askotariko sarbide probak antolatu eta egiteko behar diren ikastetxeak: borondatezkoa da ikasleendako. <ul style="list-style-type: none"> ○ Lanbide Heziketako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko eta Kirol Ikasketetako zikloetan sartzeko probak ○ Musikako goi mailako arte ikasketetan sartzeko probak. ○ Diseinuko goi mailako arte ikasketetan sartzeko probak. ○ Goi mailako arte ikasketetan sartzeko heldutasun probak. ○ Musikako kontserbatorio profesionaletan sartzeko probak 	Ekainean

Haxe da Nafarroak egiten duen proposamena: gorago aipatutako ikastetxeak ireki eta hezkuntza jardunak eginen dira, Osasun Departamentuaren iritzia kontuan hartuz eta pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatuz.

Batxilergoko bigarren mailako ikasleei dagokienez, ikasketen ikuspuntutik eta goi mailako ziklotara igo eta unibertsitatera sartzeko proba prestatzeko aukera ematen duen etapa bukaera izanik, garrantzitsutzat jotzen da ekainaren 1etik aitzina ikasleei ikastetxera joateko erraztasunak ematea unibertsitatera sartzeko ebaluazioko probak eta Batxilergoko 2. mailako deialdi bereziko probak prestatzeko.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da hizkuntza eskola ofizialetan eta adierazitako ikastegietan matrikulatutako ikasleek dagozkien ziurtagiri- edo titulazio-probak egin ahal izatea.

Ikastetxera joatea borondatezkoa da, eta ikasleak ikastetxean egonen dira soilik antolatutako jarduerak egiteko behar den denboran: eskola jasotzea, atsedendiak eta ikastetxera sartzea eta handik ateratzea.

Ikastetxera Batxilergoko 2. mailako ikasle gutxi joanen da eta, horrenbestez, baldintza hauek bermatzeko aukera dago:

- Urruntze-neurriak hartzeko aukera emanen du; izan ere, beharrezkoa denean, ikasgelak edo horretarako bermea duten beste gune batzuk erabiltzea planteatuko da, gehienez ere 15 ikasleko ratioarekin ikasgelako.

- Espazio komunak (sarbideak, korridoreak, komunak, patioak) urrutiratze-egoera egokietan erabiliko dira.

- Ikastetxeetara klaseak ematera joan behar duten irakasleen kopurua ere proportzioan islatuko da.

- Higiene- eta segurtasun-neurriak dagokienez (gel hidroalkoholikoa, maskarak, ibilbide-protokoloak, etab.), osasun agintarien gomendioak errespetatuko dira.

- Batxilergoko 2. mailako ikasleek eta langileek erabiliko dituzten ikastetxeko eremuen garbiketa areagotuko da, kontuan hartuta ikastetxeetan erabilerarik gabeko gune asko egonen direla.

- Azkenik, fase honetan ez da izanen ikasleendako garraio eta jantoki zerbitzurik.

Hizkuntza eskola ofizialetako, helduen ikastegietako eta Zubiarte euskaltegiko ikasleei dagokienez, bai eta prestakuntza zikloetara eta Kontserbatorio Profesionalera sartzeko probetara aurkezten direnei dagokienez ere, jarduerak azterketak aurrez aurre egitera mugatzen direnez gero, beste antolaketa neurri batzuk hartzen ahalko dira, aurrekoez gain, beharrezkoak diren eskakizunak betetzen direla bermatzeko. Horretarako, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emandako jarraibideak kontuan hartuko dira, hala nola sarrerak eta irteerak antolatzea, ikasle bakoitzari eman beharreko tokia ezartzea, azterketa-guneetan ibiltzea, etengabeko aireztapena izatea, eta irakasleek eta bertaratzen diren ikasleek norbera babesteko ekipamenduak (gela eta maskarak) erabiltzeko gomendioa ematea.

Batxilergoko 2. mailako ikasleen (2002an sortutakoak) eta gorago adierazitako probetara aurkezten diren ikasleen adina dela eta (gehienek horretarako aski adin badute), ondo jabetzen dira oso garrantzitsua dela urruntze- eta higiene pertsonaleko neurriak betetzea, bai eta norbera babesteko ekipamenduak behar bezala erabiltzea ere, osasun-agintariek hala erabakitzen badute.

II. fase honetan proposatutako jarduera presentzialei erantzun behar dieten irakasleak zehazterakoan, errespetatuko da ikastetxera ez joatea bereziki sentikorrak diren irakasleak (talde kalteberak), hala eskatzen badute, eta lehentasuna emanen zaio ikasleen urruneko arretarekin jarraitzeari 14 urtetik beherako pertsonak beren kargura dituzten irakasleen kasuan, bai eta bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak ardurapean dituztenenean ere, betiere familiaren etxebizitzan bizi badira eta ikastetxean edo helduendako ikastegien itxiturak eragiten badie.